

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

HIRIGINTZA

✓ **PROPOSAMENA**

Aparcamientos en Zubipe.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Karabel auzoan aparkamendu kopurua handitzeko aukera legoke egungo aparkamenduen konfigurazioa aldatuta. Hau da, egun dauden bi aparkamenduen arteko zonaldean dauden zuhaitzak eta espaloia zein aparkamendu zaharren eta zubiaren arteko espaloia altxatu, zorua egokitu, asfaltatu eta azalera berrantolatuz. 50-60 arteko plaza berri lortu liteke.

Udal Arau Subsidiarioetan, handipen honez gain, zubiaren bestaldean Zubipen, aparkamenduaren handipena aurreikusita zegoen. Beste 70 bat plaza berri lortu lirateke baina egin beharreko lanak handiagoak dira eta, ondorioz garestiagoak. Beti ere, aintzat hartuta egun 10 urteko itzulketarepealdiko uholde arriskua duen eremuan dagoela eta, URAREN baimena lortu beharko litzatekela.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

100.000 € inguru, egun dagoen aparkamendua handitu eta berrantolatu zubiaren hegoaldean. Aparkamendua zubiaren iparraldean handitzeak 125.000 euroko muga gaindituko luke.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

Lehenik eta behin URA ur agentzian kontsulta egingo litzateke. Erantzuna positiboa balitz proiektua/aurrekontua prestatu, baimena lortu eta obra egiteko 8 bat hilabete luzatu daiteke.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Hirigintza, kontratazioa, zerbitzu publikoak eta udaltzaingoa.

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

Inbertsiotan. Ez.

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

URA ur agentziarekin kontsulta egin ondoren, erantzuna aldekoa balitz, aurrera zubiaren hegoaldera dagoen aparkamendua berrantolatzeko.